

Ardatz estrategikoa:	3. ardatza- Antolamendua egokitzea	Proiektua:	Proiektua: 3.5. Intranetaren eta barne-kudeaketa elektronikoaren eboluzioa		
Azpiproiektua:	3.5.3. Eusko Jaurlaritzaren sail guztietan papera digitalizatzea				
Deskribapenaren laburpena:	<p>Paperaren orde euskarri elektronikoa erabiltzea zabaldu nahi da Eusko Jaurlaritzako sail eta organismo autonomo guztietan, dokumentuen bizi-ziklo guztian zehar: erregistratzea, tramitatzea eta artxibatzea.</p> <p>Horretarako, paperezko dokumentuen orde baliokide elektronikoak erabiliko dira tramitazio administratiboan, bai sarrera-erregistroetan (Zuzenean eta sailetako erregistroak), bai tramitazioan eta artxibo orokorrera pasatzean.</p>				
Helburu orokorrak:	Helburu operatiboak:				
<ul style="list-style-type: none"> Paperaren orde baliabide elektronikoak erabiltzea Eusko Jaurlaritzaren administrazio-prozeduretan 		Abe. 2014	Abe. 2015	Abe. 2016	
	Digitalizatutako prozeduren %	%5	%20	%50	
	Digitalizatutako espedienteen %	% 25	%50	%75	
Egikaritzea:	<ul style="list-style-type: none"> Maila teknologikoan, tramitazio elektronikoaren plataforma korporatiboa (PLATEA) egokitu egin da paperaren orde euskarri elektronikoa jartzeko espedienteak tramitatzeko fasean, baina ez Administrazioaren sarreran; izan ere, hori sailetako aplikazioekin kudeaturiko prozedura batzuetan bakarrik dago erabilgarri. Digitalizazioaren zabalkundea egin da sailetan (tramitazio-fasea). Horretarako, hainbat aurkezpen egin zaizkie arlo informatikoko langileei eta langile juridikoei. Administrazioaren sarreran, paperaren erabilera sail batzuetako prozeduretan bakarrik dago ordeztua: Etxebide, Familiak eta Kontratugileen Erregistro Orokorra; sail horietan digitalizazio-maila handia egon da: 2014-2016 BPParen aldian, 360.000 baino erregistro-idazkun gehiago eta milioi bat dokumentu. Hala, Administrazioaren sarreran papera ordezte ahalbidetzen duten prozeduren ehunekoa erlatiboki baxua bada ere, herritarrek gehien eskatzen dituen prozedurak direnez, Administrazioaren sarreran digitalizatzen diren espedienteen ehunekoa, guztira, % 60koa da. 				
Arduraduna:	Aldi baterako aurreikuspena:	Egikaritzeko benetako epea:	Egoera:	Balorazioa:	
DACIMA	Epea: 3 urte Hasiera: 2014 Amaiera: 2016	Hasiera: 2014 Amaiera:	<input type="checkbox"/> Amaitua <input checked="" type="checkbox"/> Aribidean <input type="checkbox"/> Hasi gabe	<input type="checkbox"/> Positiboa <input checked="" type="checkbox"/> Hala-nolakoa <input type="checkbox"/> Negatiboa	
Oharrak:					